**Espediente zk./Nº** Expediente: 2018SPOL0038 **Erreg. data/**Fecha Reg:
**Erreg. zk ./** Nº Registro: 000000
**Gaia/**Asunto: Akordioa: 2018-KALD00003-00 kreditu gehigarrien kreditu aldaketa espedientea onartzea / Acuerdo: Aprobación del expediente de modificación de créditos 2018-KALD00003-00, créditos adicionales.
**Eskatzailea/**Solicitante: ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)/DNI(NIF):** P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento: ERRENTERIA

## AKORDIOA

**Udalbatzarrak, 2018ko apirilaren 24an ohiko batzarrean, besteak beste, honako akordioa hartu zuen, beti ere akta onartzerakoan sor litezkeen aldaketen baitan:**

**4. Proposamena: 2018-KALD00003-00 kreditu gehigarrien kreditu aldaketa espedientea onartzea**

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, udal honen aurrekontuari eragiten diona.

Ikusita Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

2018ko apirilaren 18an, Ogasun eta Garapen Ekonomikoko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (O.E EHBILDU, Errenteria IrabaziZ), aurkako 7 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) eta 3 abstentziorekin ( EAJ/PNV),

### ERABAKI DU

**Lehenengoa**.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, proposamenean ageri den xehetasunarekin.

## ACUERDO

**El Pleno de la Corporación en Sesión ordinaria de fecha 24 de abril de 2018 adoptó, entre otros, a reserva de los términos que resulten de la aprobación del acta correspondiente, el siguiente acuerdo:**

**4. Propuesta: aprobación del expediente de modificación de créditos 2018-KALD00003-00, créditos adicionales.**

Visto el expediente de modificación de créditos, en la modalidad de créditos adicionales, que afecta al presupuesto de este Ayuntamiento

Visto el informe emitido por la Interventora, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Visto que en fecha 18 de abril de 2018, a propuesta del Concejal Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ), 6 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) y 3 abstenciones (EAJ/PNV),

### ACUERDA

**Primero**.- Aprobar el expediente de modificación de créditos, modalidad creditos adicionales, que se relaciona en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al presupuesto de este Ayuntamiento.

## KREDITU GEHIGARRIAK – CREDITOS ADICIONALES

| Kapituluak Capitulos | Izena - Denominación | Gehikuntzak Aumentos |
|---|---|---|
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK – TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 23.630,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK – INVERSIONES REALES | 1.262.190,75 |
| | **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA TOTAL CRÉDITOS ADICIONALES** | **1.285.820,75** |

## FINANTZAKETA - FINANCIACIÓN

| Kapituluak Capitulos | Izena - Denominación | Zenbatekoa Importe |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) (INGRESOS) | FINANTZA AKTIBOAK – ACTIVOS FINANCIEROS | 1.285.820,75 |
| | **GUZTIRA - TOTAL** | **1.285.820,75** |

**Bigarrena**.- Espedientea jende aurrean jarri hamabost laneguneko epean, behin iragarkia GAOn eta udal web orrian argitaratuta. Espedientea behin betiko onartuta geratuko da baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren ez bada erreklamaziorik aurkezten.

**Segundo**.- Exponer el expediente al público por plazo de quince días hábiles tras publicar el correspondiente anuncio en el BOG y web municipal. El expediente quedará definitivamente aprobado, si transcurrido el plazo de quince días hábiles de exposición al público, no se hubiese presentado reclamación alguna.

**Hirugarrena**.- Behin betirako onartuta geratuko den espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea.

**Tercero**.- Remitir copia del expediente definitivamente aprobado a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

DEKRETUA.- Interesatuei aurreko erabaki honetan agintzen denaren berri emango zaie.

Errenteria Udaleko Alkate-Lehendakariak agindu eta sinatzen du. Ziurtatzen dut.

DECRETO.- Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Lo manda y firma el Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Errentería. Certifico.

Errenteria, 2018ko apirilaren 27a

Alkate-Lehendakaria

ERRENTERIAKO ALKATETZA

Julen Mendoza Perez

Idazkari Nagusia / La Secretaria General

AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA SECRETARIA GENERAL IDAZKARITZA ERRENTERIAKO UDALA

Nasgore SARASOLA OTERMIN

DILIGENTZIA.- Data honetan agindutakoa betetzen da, ziurtatzen dut.

DILIGENCIA.- Con esta fecha se cumple lo ordenado, certifico.

Idazkari Nagusia / La Secretaria General

AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA SECRETARIA GENERAL IDAZKARITZA ERRENTERIAKO UDALA

Nagore SARASOLA OTERMIN

**PROPOSAMENA**

**AURREKONTUAREN ALDAKETA**

**KREDITU GEHIGARRIAK**

**2018-KALD-00003-00**

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, udal honen aurrekontuari eragiten diona.

Ikusita Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Azaldutako kontuan izanik,Ogasun eta Garapen Ekonomikoko Zinegotzi Delegatuak Antolaketa batzordeari proposatu dio aldeko irizpena eman diezaion, gero Udalbatzak ondorengo erabakia har dezan

**ERABAKIA**

__Lehenengoa__.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, proposamenean ageri den xehetasunarekin.

**PROPUESTA**

**MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO**

**CREDITOS DE ADICIONALES**

**2018-KALD00003-00**

Visto el expediente de modificación de créditos, en la modalidad de créditos adicionales, que afecta al presupuesto de este Ayuntamiento

Visto el informe emitido por la Interventora, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

El Concejal Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, a la vista de lo expuesto, propone a la Comisión Informativa de Organización, se dictamine favorablemente al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente

**ACUERDO**

__Primero__.- Aprobar el expediente de modificación de créditos, modalidad creditos adicionales, que se relaciona en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al presupuesto de este Ayuntamiento.

**KREDITU GEHIGARRIAK – CREDITOS ADICIONALES**

| Kapituluak Capitulos | Izena - Denominación | Gehikuntzak Aumentos |
|---|---|---|
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK – TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 23.630,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK – INVERSIONES REALES | 1.262.190,75 |
| | **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA TOTAL CRÉDITOS ADICIONALES** | **1.285.820,75** |

ERRENTERIAKO UDALA
Kontuhartzailetza

AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA
Intervención

## FINANTZAKETA - FINANCIACIÓN

| Kapituluak Capitulos | Izena - Denominación | Zenbatekoa Importe |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) (INGRESOS) | FINANTZA AKTIBOAK – ACTIVOS FINANCIEROS | 1.285.820,75 |
| GUZTIRA - TOTAL | | **1.285.820,75** |

**Bigarrena**.- Espedientea jende aurrean jarri hamabost laneguneko epean, behin iragarkia GAOn eta udal web orrian argitaratuta. Espedientea behin betiko onartuta geratuko da baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren ez bada erreklamaziorik aurkezten.

**Segundo**.- Exponer el expediente al público por plazo de quince días hábiles tras publicar el correspondiente anuncio en el BOG y web municipal. El expediente quedará definitivamente aprobado, si transcurrido el plazo de quince días hábiles de exposición al público, no se hubiese presentado reclamación alguna.

**Hirugarrena**.- Behin betirako onartuta geratuko den espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea.

**Tercero**.- Remitir copia del expediente definitivamente aprobado a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Errenteria, 2018-04-12

ERRENTERIAKO ALKATETZA

Jon Txasko Orgilles
Ogasuna eta Garapen Ekonomikoko Zinegotzi Delegatua

Adierazten den datan Osoko Bilkurak
Ikusi eta / Visto en Sesión Plenaria
de esta fecha .......onar. bic./.hasiezko onespena

2 4 ABR 2018

ERRENTERIAKO UDALA
Idazkari Nagusia
La Secretario Gral.

## MODIFICACION PRESUPUESTARIAS

## AURREKONTUAREN ALDAKETAK

### KREDITU GEHIGARRIAK– CREDITOS ADICIONALES 2018KALD000003-00

### INFORME

***Sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.***

**NORMATIVA APLICABLE:**

- Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.

- Norma Foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa.
- Acuerdo del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Instrucción con las reglas que las entidades locales de Gipuzkoa deberán seguir en la elaboración, aprobación y ejecución de los presupuestos del año 2018.

**TRÁMITE EXAMINADO:**

Aprobación de modificación de créditos

**ENTIDADES DEL ARTÍCULO 1.2.a) DE LA NORMA FORAL 1/2013**

**1-RELACIÓN DE ENTIDADES:**

### TXOSTENA

***Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzkoa***

**ARAUDI APLIKAGARRIA:**

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluaren akordioa. Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2018ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea.

**AZTERTUTAKO TRAMITEA:**

Kreditu aldaketen onarpena

**FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK**

**1-ENTITATE ZERRENDA**

- **AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**
- **PATRONATO ERRENTERIA MUSICAL**
- **PATRONATO ERRENTERIAKO ZAHARREN EGOITZA**
- **ERRENTERIA GARATUZ S.A.**
- **OARSOALDEA S.A.**

**2-VERIFICACIÓN DEL CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS**

**Estabilidad presupuestaria:**

**2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA**

**Aurrekontuen egonkortasuna:**

Teniendo en cuenta los expedientes de modificación de créditos, esta entidad local presenta un **Deficit de 1.257.890,75 euros**, en términos del Sistema Europeo de Cuentas Nacionales y Regionales (SEC). A estos efectos, dado que no se prevén operaciones significativas que exijan un ajuste posterior, dicho cálculo se ha efectuado como diferencia entre los ingresos de los capítulos 1 a 7, y los gastos de los capítulos 1 a 7, del presupuesto consolidado, y se han llevado a cabo los ajustes correspondientes.

En concreto, se han realizado los ajustes correspondientes a las aportaciones de los patronatos dependientes del Ayuntamiento, al objeto de que las mismas no difuminen el resultado de estabilidad presupuestaria.

El remanente de tesoreria utilizado, proveniente de la liquidación del presupuesto de 2017 asciende a 1.285.820,75 euros. De esta forma, computando el mismo **resultaría una Capacidad de 27.930,00 euros.**

Para 2018 el objetivo establecido es de déficit cero, y deberá de medirse en la liquidación del presupuesto.

Por lo tanto, teniendo en cuenta los expedientes de modificación de créditos, esta entidad local **Si cumple** el objetivo de estabilidad presupuestaria.

**Sostenibilidad financiera:**

A 31 de diciembre de 2018, se prevé que la deuda viva de las entidades arriba relacionadas suponga el 29,91 % de los ingresos corrientes liquidados en 2017. Para dicho cálculo, se ha partido del importe de deuda viva correspondiente a todas las operaciones vigentes a 31 de diciembre de 2017, incluido el riesgo derivado de los avales; al resultado obtenido se han agregado las operaciones formalizadas y no dispuestas así como aquéllas que estén previstas para el año 2018, y se han deducido las amortizaciones previstas para 2018.

En este caso también se han tomado como base los ingresos corrientes liquidados en el ejercicio 2017 (consolidado) y se ha realizado el correspondiente ajuste de las aportaciones de los patronatos.

Kredituen aldaketen espedienteak kontuan hartuta, toki entitate honek **1.257.890,75 euroko Defizita** du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, aurrekontu kontsolidatua aintzat harturik, eta ekitaldi dagozkion doiketak egin dira.

Zehazki, Udalak bere menpeko patronatuei egindako ekarpenen doiketak egin dira aurrekontu egonkortasun emaitza lausotu ez dezaten.

Erabili den 2017ko aurrekontu likidaziotik datorren diruzaintzako gerakina 1.285.820,75 eurokoa da. Beraz, kopuru hori kontuan hartuta, **ahalmena 27.930,00 eurokoa litzateke.**

2018rako ezarritako helburua defizita zero izatea da, eta aurrekontu likidazioan neurtu beharko da.

Hori dela eta, kreditu aldaketen espedienteak kontuan hartuta, toki entitate honek **betetzen du** aurrekontu egonkortasunaren helburua.

**Finantzen iraunkortasuna:**

2017ko abenduaren 31ean, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2017an likidatutako sarrera arrunten **% 29,91** izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2017ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2018rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2018rako aurreikusitako amortizazioak.

Kasu honetan ere 2017an likidatutako eskubideak hartu dira oinarri (kontsolidatua) eta patronatuetako ekarpenei dagokien doiketak egin dira.

El objetivo establecido para 2018 es que la citada magnitud no sea superior al **75,00%.**

2018rako ezarritako helburua magnitude hori **% 75,00** baino handiagoa ez izatea da.

Por lo tanto, teniendo en cuenta los expedientes de modificación de créditos, esta entidad local **Sí cumple** el objetivo de sostenibilidad financiera.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedienteak kontuan hartuta, toki entitate honek **bete egiten du** finantza iraunkortasunaren 2018rako helburua.

**Regla de gasto:**

**Gastuaren araua:**

Se medirá en el momento de liquidar el presupuesto de 2018, si bien con los datos del Presupuesto definitivo actual la variación se sitúa en 1,17 %. El objetivo o límite 2018, en cambio, 2,4 %.

2018ko aurrekontua likidatutakoan neurtuko da. Hala ere, egungo behin betiko aurrekontuaren datien arabera aldakuntza % 1,17an kokatzen da. 2018ko helburua edo muga aldiz % 2,4.

## 3.- CONCLUSIONES

## 3- ONDORIOAK

En los expedientes de modificación de créditos que se someten a informe, este Ayuntamiento cumple con los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gesto previstos para 2018.

Txosten honetan aztertutako kreditu-aldaketaren espedienteetan, Udal honek betetzen ditu 2018ko aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasunaren eta gastu arauaren helburuak.

En base a todo ello, procede informar en la forma expuesta y de modo favorable los expedientes objeto de este trámite.

Hori guztia dela-eta, bidezkoa da tramite honen gai den espedientearen aldeko txostena ematea azaldutako eran.

ERRENTERIAKO UDALA * Kontuhartzailetza *

Errenteria, 2018ko apirilaren 12an.

Mª Jose Sanchez Plaza, Udal Kontuhartzailea